**Ozeanoaren konkista 8. - 11. or.**

**Testuan seinaleak bildu eta, pertsonaiek ozeanoaz duten sinesmenak/irudikapenak adieraz itzazu.**

| | Jendea | .... |
|---|---|---|
| **Zer diote ozeanoari buruz?**<br><br>**Testuko seinaleak bil itzazu.** | | |
| **Zer diote ozeanoari buruz?**<br><br>**Pertsonaia horiei buruz zer erran zenezake: nolakoak dira?**<br>**Zer portaera dute?** | | |

Zuzenketa proposamena

| | **Jendea** | **....** |
|---|---|---|
| **Zer diote ozeanoari buruz?**<br><br>**Testuko seinaleak bil itzazu.** | ... baina ozeanora ez zen sekula hurbiltzen.<br><br>... haren (ozeanoaren) izaera aldakorraren beldur: batzuetan jabal-<br>... haren hedadurak ere jendea ikaratzen zuen.<br>“Mugagabeko zabaltasunetik hara zer ote zen? Mundua urrun hartan bukatzen ote zen? “<br><br>Ur handietan ageri ziren basihizi lazgarriek zuten jendea gehienik iziarazten<br>… Ez zen munduan izaki arraroago eta larriagorik.<br>**«Munstro» izena eman zieten.**<br>Munstro horiek **izaki sorgindu eta madarikatuak** baizik ez zitezkeen izan; halaber haien bizilekuak.<br>**Beraz, itsasora hurbiltzea debekatua zen. Zinez debekatua.**<br><br>Uhinek ur bazterrera hurbiltzen den oro eramaten dute, eta itsaso madarikatuak irensten du betiko! | Amets haur ernea zen, denak **jakin nahia**, **batere ez ingurukoen beldur.** Herritarrek ez bezala, hark **ura oso gustukoa zuen**! Ozeanoa lasai zelarik, **gordeka joaten zen plisti-plasta ibiltzera**.<br><br>Xakurra Ametsen ondotik joaten zen usu, eta urean jostatzen ziren biak, **nehork ikusten ez zituela segur zirelarik**.<br><br>Ontsa baitzekien haurrak herriko jendeak zer kontatzen zuen: ...<br>**Baina** Amets **arrunt liluratua zen neurrigabeko ur eremuaren aitzinean**, eta zoratua hari hain hurbil izateaz.<br><br>Ohartua zen urpean izaki ttipi dirdiratsuak bazebiltzala, **iduriz ez gaiztoak.**<br>“Zuen ondotik joan nahi nuke, eta munstro handiak ezagutu...” |
| **Zer diote ozeanoari buruz?**<br><br>**Pertsonaia horiei buruz zer erran zenezake: nolakoak dira?**<br>**Zer portaera dute?** | Ozeanoa mundu ezezaguna da jendearentzat<br>Zabala da, hedatua ... agertzen diren animaliak munstroak dira.<br><br>Haurrei ozeanora joatea debekatzen diete. | Ametsek beldurrik ez du. Alderantziz, ozeanoaren eta ozeanoko animalia guztien ezagutzeko gogoa du.<br><br>Nahiz eta debekatua izan, ozeanora hurbiltzen da bere lagunarekin. |